

Ura eta sua berriak Beasainen (Gipuzkoa)

Nahiz eta gaur ere Aste Santuaren bukaerako Pazkoaren elizkizunean errito hau ospatu, biztanlerian ez da nabarmentzen lehen zuen ospea. Ura eta sua berriak bedeinkatzeari buruz ari naiz. Beraz, Pazkotako meza hasi aurretik, apaizak elizako sarreran dagoen urbedeinkatu-ontzian ur berria jarri eta bedeinkatu egiten du. Eta era berean, kandela berri bat piztu eta su berria bedeinkatzen du.

Ura edozein iturritik hartuko zen baina, garai batean, sua era zaharrea pizten zen. Hau da, suharri bati aiztoarekin kolpeak zeharka joaz ateratzen zituen txinpartekin ardagai pusketa bat piztuaz; eta ilinti hura putz eginaz suspertuaz pizten zuen bedeinkatzeko kandela sakristauak. Gero kandela hartatik beste batzuk piztuaz zabaltzen zen elizan su berria.

Gure txikitan akolitoak ginenok, Aste Santuan urtero ikusten genuen Beasaingo parrokiako sakristauak suharriarekin su berria nola lortzen zuen.

Eta garai hartako familia gehienetan su eta urbedeinkatu berriekin beren sukaldeko sua berri eta, leihotik ihintatuaz, ekaitzak uxatzeko urbedeinkatu berria etxean eduki nahi izaten zuten.

Mutikoek berriz, aurrez, gure mendiko ibileretan zuhaitzen enborretan zeuden ardagai perretxikoak hartu eta etxean, igartzen utzi ondoren, pusketak egiten genituen. Bazeukaten haiek beren misioa. Meza hartara joaten ginenean gure galtzetako patrikak ardagai pusketatxo beteta joaten ziren. Eta meza bukatu ondoren, pusketa baten su berria hartu eta etxerik etxe joaten ginen su berria eramatera.

Bagenekien etxeakoandrengandik sariren bat eroriko zitzaigula. Baserrietan intxaurren batzuk edo gaztainak izango ziren ematen zigutenak, eta kaleko etxeetan berriz txakur txiki edo txakur handiko txanponen bat. Hala, nahiz ez aberastu, Pazko-igandean gutiziaren bat edo beste erosteko diru gehixeago izango genuen.

José Zufiaurre – Etniker Gipuzkoa – Etniker Euskalerrria Taldeak